

# **BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ\***

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

319n. zenbakia

2006 uztailla-agustua



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

**LAGUNTZAILLE**

---

---

# SARRERA.– ZER DIRAN

---

---

Zomorroa berbea ez da Bizkai'koa, Gipuzkoa'koa baiño. Ez dakit Gipuzkoa'n berba onek zer esan nai dauan, baiña ez dot aurkitzen euskeran berba egoki bat, ain ezbardin diran pizti guzti oneintzat balio dauan izena izateko: Sedagilleak, saltamatxinoak, ondatzailleak, parasitoak, eta geiago sartuko litza-kez berba onen adierazpenean..

Gasteleraz “insectos” deritxe, berba ori be latiñetik artua da eta “ebagi-bakoa” esan gura dau. Izen ori obeto jatorke zomorro batzui beste batzui baiño, kotxoari ondo jatorke baiña ez ain ondo erleari. Guk zomorro berbea artu dogu guztientzat.

Zomorroen gorputzak iru zati daukaz: Burua, bularra ta sabela. Batzuk besoak daukez, beste batzuk besoen orde zegoak. Gaiñera matrail-azur bi, iru anka-pare eta zentzunak.

Gorputzak azur-antzeko azal gogor bat eukiten dau, kitinaz egiña eta barruan beste azal meeago bat kitina ori egin eta emoteko.

Buruan adarrak eta begiak daukez eta adarrak balio dau-tsee usaiña artzeko eta ikutua egiteko. Izadiak aureskia egiten dau, zati lar barik

Adar orreik askotarikoak izaten dira: mailluak, ariak, korapilloak, orraziak, zintzelak, laburrak...Erlemendoak adar orreik zulo txikiz beterik daukoz, eun milla zulo, usaiña artzeko.

Zomorroentzat garratzi geiago dauko usainmenak, ikusmenak baiño, esaterako erleak urriñeko loren usaiña artzen dabe.

Kanpoko zomorro bat taldera urreratzen danean, iñurri bat esaterako, usain bardiña ez daukalako burrukea sortzen da eta kanpokoa edo il edo uxatu egiten dabe.

Zomorroen entzumena be ez da izaten ain ona, antza. Iñurriak eta eltxoak adarretatik entzuten dabe, besteak soiñean dabez abalduta belarriak. Saltamatxiñoak anketatik entzuten dabe.

## AGOA:

Jan bear dabena jateko, eratuta dauke agoa eta askotariko agoak dagoz. Saltamatxinoak goiko ezpanagaz eutsi egiten dautso jakiari eta bekoagaz eiza egin eta mamurru egiten dau.

Tronpa luze edo ezten bat eukiten dabe lore-autsa artzeko. Mintxiak anketan dauke gozo-artzaillea. Batzuk ezten orretan pozoia dauke eta azaletik barrura sartu be egiten dautso are-riolari pozoï ori, esaterako erleak.

## BEGIAK:

Batzuk zati bateko begia dauke, beste batzuk bikoa. Batzuk bekoki erdian dauke begi bat eta bestea gorputzean ezkutatuta. Erle-begiak 20 000 azal daukaz eta iñurriak ogei baiño ez. Ikusi izadiak zelán gertatzen dauan bear dauana.

## BULARRA:

Buruaren eta bularraren bitartean sama meea dauke eta bularra kitinaz estalduta dago iru zatitan eta zati bakoitxaren alboan anka-pare bat, guztiz iru anka-pare. Anka bakoitxak bost zati daukaz: aldaka, iztar-aurrea, iztarra, bernea eta atza-zala.

Anka orreikaz ibilli, arin egin, salto egin, landaretara igon, orri-gaiñean ibilli eta uretan uger egin, egiten dabe Ankakaz egiten dabez zuloak euren buruak gordeteko, esatera txirri-txirriak.

Saltariak diranak anka aundiagoak daukez. Kakarraldoaren ankea, agindun pala baten antzekoa da.

## SABELA:

Bularra ta sabela garri mee batek lotzen dauz eta sabelean uztai-antzekoak daukez. Sabelean ez dauke ankarik, baiña bai errotea.

## URDAILLA:

Janaria eioteko, bide luze bat dauke zati oneikaz: este gorria, pasapoa, erdiko estea, eta atzeko estea.

## EGOAK:

Bitariko zomorroak dagoz, egodunak eta egobakoak. Egodunak dira oraintsuago ludian agertuak, baiña zomorrorik geienak egobakoak dira

Egoak iru zati daukaz: muzturra, ertzak eta uleak.

Batzuk beti erabilten dabez egoak, beste batzuk ez beti.. Batzuk egoak galdu egin dabez, esaterako zorriak.

Tximeletak edo mintxiak dira ariñen egiten dabenak, orduko 50 km.

Etxeko euliak segundoko 190 bider astintzen dauz egoak.

## ARNASEA:

Gorputzaren zuloetatik artzen dabe arnasea. Geienak sabel edo bular-aldean dabezan zuloetatik. Amar edo amabi zulo-bikote izaten dira. Zelulak egiten dabe odola garbitzea (Karbo-noa kendu eta oksijenoa sartu).

Uretan dabiltzanak batzuk aizea eroan egiten dabe sabel-barruan, zorrotxuetan, beste batzuk ur-gaiñera odi edo tubo bat dauke, beste batzuk zakatza edo brankia dauke.

## ODOLA:

Margobakoa da odola eta ez dabil zanetan, gorputz guztia beteten baiño.

## BIOTZA

Zatitua da eta odola batu eta zabaldu egiten dau gorputzean.

## AZKENA:

Azaldu ete dogu zomorroa zer dan? Askotarikoak dira eta or barruan eskutuki asko dagoz jakitunak aztertu eta bizia zelán eroan leiken ikusteko. Oraindiño misterio asko dagoz or aztertzeke.

## OAR BAT:

Zomorroak euren lekuan ezarteko, gogoratu daiguzan ludiaren aldiak eta euren urteak.

– Antxiñakoa edo era arkaika: 3 500 milloi urte: Ez egoan bizidunik

– 1ª edo era primaria: 500 milloi urte: Kanbriko, siluriko, deboniko, permiano. Azkenean agertu ziran zomorroen aurrekoak.

– 2ª edo sekundaria: 200 milloi urte: Triasiko, jurasiko, kre-tazeo. Narraztiak agertu ziran

– 3ª edo terziaria: 75 milloi urte: Eozeno, oligozeno, miozeno. Or agertu ziran abereak eta landarak

– 4ª edo kuarternaria: Gaurko antzekoa, orain milloi bat urte asita. Plesitozena, Olozeno.

## ERRI AUNDI BAT

Leinuak alkartuta erri bat sortzen danean, erri orrek aunditasunera jotzen dau. Olan arabiarrek, olan israeldarrak.

Begiratu dagiegun israeldarrai.

Samuel'ek erri biurtu eta erregea emon eutsenean asi zan aunditasunerako bidea eta Salomon'en errege-aldian eldu zan aunditasun ori bere erpiñera, jauretze edo tenplua ezaugarri zala

Saba'ko erregiñea etorri jakon ikertaldia egitera eta gaur be Etiopia'ko erregeak eta erritarrak Salomon dauke euren errege-etxearen sortzaille lez.

Urre-aldia izan zan Israel'en Salomon'en errege-aldia eta bera il zanean asi zan erreinuaren beera-bidea. Azkenengo urteetan batez be, Jainkoagaz zintzoa izan ez zalako, zigorra zala uste eben erritarrak. Erria zati bi egin zan eta judatarrek jarraitu eben agintzarien lekuko lez. Israel betiko galdu zan erbeste-aldian.

Esan dogu euskaldunak lainuetan gelditu zirala eta leiñuen ondorena dirala gaurko zazpi euskal lurraldeak.

Esanda geratu da, baita, Euzkadi zortu dala euskaldun guztien aberri lez, baiña erkidegoari lurralderik geienak peitzen jakoz, iparraldeko irurak (Laburdi, Benaparroa eta Zuberota) eta Naparroa.

Elduko ete gara "zazpiak bat" dirala adierazten dauan jaurlaritza bakarrera eta gero ortik sortuko dan urre-aldira?

Euskereak izan dauala dirudi bere urre-aldia, Azkue ta Sabino Arana'ren aldia. Ala aldi ori etorteko dago?

Eta Euskalerraren urre-aldia etorriko ete da? Bear ba'da, batzuk esango dabe Euskalerraren urre-aldi ori Naparroa'ko III Santxo Aundiaren errege-aldia izan zala,

baiña ori nekez onartuko dabe erreinu onen alboan egozan Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa'k, naizta eurak be erreinuko izan.

Beste errien edestiagaz Euskalerraren konparatu ezker, aldi ori etorteko dagoala eta etorriko dala esan bear dogu.

Zelan?

Ez lurraldeak ugarituta edo beste lurralde batzuk geuganatuta. Ori ez litzake euskaldunen jokabidea eta Naparroa'ko erreinuak be ez ebazan gudaz irabazi Aragoi, Sobrarbe eta Ribagortza. Berez-berez etorri ziran.

Ez dakigu etorkizunean zer eta zelan agertuko dan baiña guk egin daiguzan "zazpiak bat" eta lurralde guztien aurrerapena lortu dagigun, indartu dagigun gure euskerea eta etortekoa etorriko da.

Gaiñera, gure Euskalerrak beste zabalkuntza bi daukaz.

Bat: Euskerea Europa osoan eta inguruetan izan dauan ikutua. Or dagoz ezaugarri lez odolaren bereiztasuna eta toki-izenak eta ori azaltzeko aspaldion esaten dan gauza arrigarria: Izotz-aldia amaitu zanean gure aurretiko zan kromaion gizakiak emendik urten eta iparralderantz jo ebal oreinak- eta eizatzeko.

Bi: Disapora'ko euskaldunak, batez be Ego-Ameriketako lurraldeetan, dauken bizitzasuna eta erri-zaletasuna.

Gu ez gara aginterri-zaleak, ez gara "inperialistak", baiña gauzak etorri diran lez etorri dira eta ezin izango dogu alboratu etorkizunak ekarriko dauskuna. Izango ete gara inoz erri aundi bat?

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## ZURE ODOLAZ EROSI DITUZU

Mundua, miñez, egon  
ekaitzak zapalduta  
samintasunpean,  
ezer ez ta negarra,  
larri, egon gizona  
nekien artean.

Jainko Alguztiduna,  
adi adi, egoan  
lurrera begira,  
gizadia ekusan  
samiñak ondatuta  
burutik oiñera.

Egoera larria  
ezin ikusi eban  
beraren semeetan,  
eta Aitak Semea,  
gogoz, bialdu eban  
ordu estuetan.

Lurreko izakiak,  
sagar, madari, prisku,  
guri guri, dagoz.  
zerutar laguntzeak  
indartuten, bai, ditu  
guztien poiz-giroz.

Gizona deika dago  
beren ezer ezean  
Jaungoiko Jaunari,  
maitasun ta argia  
nai ditu lur onetan  
bizitz lagungarri.

Erantzuna ba-dator  
zeru-goitik lurrera  
maitasun guztiaz,  
gizonaren bizia  
bedeinkatzen dau Jaunak  
gogorik onenaz.

**PAULIN**

# IZAN ADITZAREN IRAGANALDIKO ADIZKIAK

Arruntenak oneek dira gaur : *nintzan*, *intzan*, *zan*, *giñan*, *ziñan*, *ziran*. Sorreran, *intzan* singularra zan edozeinentzat eta *ziñan* plurala. Orrela erabilten doguz aldaketa zarrak aztertzeke.

Lengoa esaten genduan oraiñaldiko sorrerakoak *neur izan*, *eur izan*, *geur izan*, *zeur izan*, *beur izan* zirala, itz bigaz osaturik. Geroago, aldaketak egiten jardun ziraneko une baten, *naiza*, *aiza*, *daiza*, *gaitza*, *zaitza*, *ditza* izatera eldu zirala, bakoitza itz bakarragaz, alkarrerri lotu ziralako. Orrela, *ni-(l)en-izan* > *nintzan* sortzeke, adibidez, ezin zan ezelan be *naiza* itz bakarrera eldu ta gero, tartean *(l)en* ‘antes’ sartu. Orregatik, *naiza*, itz bakarra egin baiño lenago sortu bear izan zan itz biko *neu(r) - izan*-en tartean *(l)en* ipiñirik > *neu(r) -(l)en-izan* eta amendik *nintzan* aldaketa etorri al izan zedin. Orren arauera, orduan, *neu(r) -(l)en-izan* > *nintzan*, *eu(r) -(l)en-izan* > *intzan*, *geu(r) -(l)en-izan* > *gintzan*, (bizkaieran), *zeu(r) -(l)en-izan* > *zintzan*, (bizkaieran). Euskalki onetan legez, *gintzan* eta *zintzan*-ek bizirik dirae Zaraitzun, *gintzen*, *zintzen*, Erronkariko euskalkian eta *gintzen* Naparroako Erasun-en. Irugarren pertsonetako adizkiak, beti lez, aldaketa bereziak izan dituez eta geroago aztertuko dituguz.

Or sartzen dogun *(l)en* ‘antes’ orreri buruz, esan dagigun I.M.Echaide-k idatzi ebala chinatar aditzak be antzera moldatzen dirala gaur bertan be, *len*, *gero*, etab. erabilliz. Campion-ek esaten eban izkuntza asko dagozala oraiñaldiko aditzari, *biar*, *atzo*, *len*, *gero*, etab. geituz konpontzen diranak. J. Oregi-k be, idatzi eban *n-en-tor*-en ikusten dan *-en-* ori erderako ‘antes’ zala. Jaun onek, gañera, esaten eban, geroaldiko *ke* be *gero* ‘después’ itzetik datorrela. Orregatik izan leiteke, aditz erroa baiño *ge*-roago ipintzea *-ke* geroaldiko marka eta aditz erroa baiño *len*-ago *(l)en* iraganaren marka, onela :

<i>neu(r)</i>	<i>iza(n)</i>	> <i>naiza-</i>	‘yo soy’
<i>neu(r)</i>	<i>iza(n)</i>	<i>ge(ro)</i>	> <i>naiza-ke</i> ‘yo seré’
<i>neu(r) (l)en</i>	<i>izan</i>	> <i>ni-n-tzan</i>	‘yo era’

*Nintza-n*-en amaierako *-n* ori *iza-n* aditzaren *-n* berbera da ta asierako une baten iru kasuetan erabiliko zan ez eukalako esangura berezirik. Gero, nasketarik ez izatearren edo, orainalditik kendu eben eta iraganaldian gelditu zan au berau geiago indarturik. Diñogun, bide batez, *-n* orrek beste jokaera berezi bat be egiten dabela datibodun adizkietan, adibidez : *nintza-n* + *(k)o(neri)* ‘yo era a él’ adizki konposatu barriaren amaierara jauzi egiñez : *nintza* - *(k)o - n*. Orrelako zeozer gertatzen da *onela-n*, *orrela-n*, adberbiokaz, *one-n-la* ta *orre-n-la* zarragoetatik datozelako.

Azkenengo artikuluan esan genduan gipuzkerako adizki datibodunak *ga-iza-izkio* ta *za-itza-izkio* ezin etorri leitekezala gaurko *gara* ta *zara*-tik eta bai *ga-itza* ta *za-itza* sorrerakoetatik. Gipuzkerako oraiñaldian *-za-* ta *-tza-* erroekaz agertzen diran datibodun adizkiak, bizkaieran onako aldaketak izan dituez : *-txa-*, *-ja-*, *-xa-*, *-ia-*, *-dxa-*, erroak, adibidez, *ga-txa-koz*, *ga-ja-koz*, *ga-ia-koz*, etab. eta

aditz-jokoaren kasu askotan ikusiko dituguz aldaketa oneek

Era berean, iraganaldiko Gip. *gin-tza-izkion*, Biz. *gin-txa-kozan*, Sul. *gin-tze-ion*, BNor. *gin-tza-zkon*, etab., eta Gip. *zin-tza-ion*, Biz. *zin-txa-kozan*, Sul. *zin-tze-ion*, BNor. *zin-tza-zkon*, etab., bakar-bakarrrik etorri leitekez sorrerako *gin-tza-n* eta *zin-tza-n*-etik eta ezelan be ez gaurko *gi-ña-n* eta *zi-ña-n* barriagoetatik. *-Tza-* erroa aldatzea erraza da ze *onen-tza-ko* orrela ba da batzuen *-tza-ko*, *onen-da-ko* biurtu da besten *-da-ko*. (kasu geiago dagoz)

Bestalde, idazle asko izan dira *-za-* edo *-tza-* erro zarraren aldekoak. Geze, Vinson, Bonaparte, Echaide, Azkue, Trombeti, Arotçarena, etab. Mikoleta bizkaitarrak, 1653-n urtean, ipinten eban *gin-tza-tekean*. Urte lapurditarrak, 1712-n urtean, *gin-tza-karkete*, *gin-da-karkete*, *gi-ña-karkete*, iru aldaketa ezbardin batera. Añibarrok, *gi-ñi-an* baiña *gin-tza-n* be bai. Bonapartek esan eban *-za/tza-* erroak *-da-* egiten dabela BNoc. *hin-tza-kon* eta BNor. *hin-da-kon*. Baita be, alkarregaz bizi dira BNor. *nin-tza-kon* eta *hin-da-kon*.

Edozelan be, Mitxelenak eta J.A. Lakarrak esaten eben *ginan*, *ginen* idazki zarragoetan agertzen zirala bizkaierako *gintzazan* baiño ta orregatik azkanengo au barriagoa zala. Argudio ustela ta arriskutsua da ori. Erri zeiak zelan esaten eban sorrerako sasoi areetan ? 1596-ko Refranes y Sentencias, 406 zenb., ipinten dau *bagenduco bagin-ç-aquique* ‘si tuviésemos sabríamos’. Mitxelenak aldatu gura eban esanez *bagin-e-aquique* izan bear ebala, naiz eta *-ç-* ori garbi irakurtzen dan idazkian. Ez egoan iñor bere alde. Arritzekoa, oin be, bizkaieran bizirik dirauen adizki jatorrak baztartzea.

Irugarren pertsonetako adizkiak bereziagoak dira, beti lez, aldaketa larregi ta arrigarriak egiten dituezelako bere itxura jatorra galduz. Kasu onetan, *zan*, singularrak, *izan*-en erroa gorde dau bakarrik eta sujetoaren marka osorik galdu. *Z-iran*, pluralak, ostera, *izan*-en erroa aldatu dau *iran* aditzarena balitz lez, oraiñaldian *d-ira*-gaz gertatzen dan lez. Asierako *z-i-* ori ez litzake izan bear irugarren pertsonaren marka jatorra, *b-* edo beregandik datorren *d-* diralako.

Oin be, adizki eratorriak erakutsiko deusku, *zan* eta *ziran*, gaur baño osoagoak zirala sasoi baten, adibidez : *zi-tza-ion*, *zi-tza-kon*, sing., *zi-tza-zkion*, *zi-tza-zkon*, plu., Biz. *li-tza-ke* ta *li-tza-kez*, *li-tza-tekian* eta *li-tza-tekezan*. Gip. bal-itz eta bal-ira baiña Biz. bal-itz eta bal-itz-z, etab. Zerrenda luzea dago, baiña ipiñitakoekaz naikoa da argi ikusteko *z-ira-n*-en aurretik *z-itza-n* izan zala eta singularreko *za-n*-ek zeozer baeukala sujetoaren markatzat. Urrengoan aleginduko gara probatzen *baldin bada* esakeratik atara leikela zelakoak izan ziran iraganaldiko irugarren personen adizki zarrak.

# AIDEA BAIÑO ARIÑAGO

Millak urteak dirala, ba-zan egaz egiteko amesa: Babilonia'n, Asiria'n, Ejipto'n eta Grezia'n egaztien egazkadak aztertzen ebezan baiña ezin lortu egaz egite ori. Urgaiñean ibiltea bai, lortu zan, baiña aidean egaztien antzera ibilte ori jainkoben eta deabruen eskubidea zan!

Grezia'ko mito edo kondairetan ba-dagoz egaldia buruz diranak. Gogoratu Dedalo eta Ikaro.

XI gizaldian gizakiak ego-antzeko tresnakaz torretatik jauziak egin ebezan, baiña antxe il ziran.

Urteen joanean gauza asko aldatu ziran, baiña egaz egitea lortu? Vinci'ko Leonardo'k artu eban egaztien erronka ori. Izan be, Leonardo danerako zan ona: Margolaria, irudigillea, etxegillea, musikalaria, injenieria, asmatzaillea ta giza-zalea.

Gizon zur orrek aztertu ebazan egaztiak eta arein antzera egin eban "ortoptero" izena ezarri eutson tramankulu egalaria, egaz egiteko norberaren besoak eta anak erabilliz. Baiña dana alperrik! Dana dala, arlo onetan lenengo maisua izan zan eta lenengoa baita aurrerapena barik ondamedia lortu ebenen artean.

Lana'ko Francesko abade italiarra izan zan urrengoa. Onek kortxo ur-gaiñean gelditzen zala ikusirik, pentsatu eban: Zergaitik ezin leike lortu aizea baiño ariñagoa dan zeozer?

Aide-ontzi bat asmau eban! Ondoan lau globo. Ikusi ebazan aidean ibilten eta gerraterako onak izango zirala uste eban. Baiña ames utsa izan ziran guda oneik. Dana dala, Leonardo baiño aurrerago joan zan ontzi egalariaren bidean.

1782n. urtean Jose ta Esteban Mongolfier anai ameslariak agertu ziran: Zergaitik ez dogu sartzen laiñoa zaku baten? Sutondoan berba egiten eben artean, sedazko zakua egin eben eta gora egiten ebala ikusi be bai. Eta 1783n. urtean kanpoan egin ebazan saioak, 12 m. 'ko biribil bat orrelan eginda, etxean lez sua azpian zala. 2000 m. gora egin eban biribil orrek, azpiko suak aizea berotzen ebalako eta aize beroa ariñagoa dalako, otza baiño. Ba-goaz gauzak ikasten!

1783n. urtean biribil orretan gizon bik igon eben. Orra or lenengo ibillaldia aizean gora! Barruan metalezko ontzi baten sua eroien. 25 minutuan egaz ibilli ziran Paris'ko etxeen gaiñean eta gozo-gozo lurreratu ziran.

Amar egun geroago Charles fisika-zalea biribil baten igon zan. Au kautxoz eta sedaz egiña zan eta aize ordeztrojenoa erabilten eban barruan, aizea baiño ariñagoa dalako. Ordu bi aidean Paris'en eta nai izan ebenean jatsi ziran, 40 km. eginda.

Blanchard'ek igaro eban lenengoz Matxa'ko ubidea eta urte beratan Razier beronen lagunak barriro igaro nai izan eban ubide ori eta ez eban lortu. Bertan il ziran.

1793n. urtean Jorge Washington'en aurrean Blanchard'ek egaz egin eban.

Lortu zan ba lenego urratsa: gizakia aidean egaz ibiltea!

Baiña urrengo asmakizuna "Zeppelin" da. Asmatzailleen izena daroan tramankulu onek 47m. luze eukazan eta elizari eragiteko iru zaldizko indarra. Orduko 8 km. egiten ebazan baiña aizea aurrez ba'egoan onek gelditu egiten eban. Ez zan abiada aundiagorik lortu motorrak obeak izatea lortu arte, lerkai edo "eksplosiñozko" motorrak.

XIX gizaldian, azkenean, Dumont brasildarrak 1898n. urtean eliz barri bat lortu eban eta Paris'ko teillatu-gaiñean ibilten zan.

1901n. urtean Saint Clou'tik Paris'era etorri eta Eiffel torreari bira emon eutsoen eta atzera biurtu.

Urrengo, Zeppelin eritxon kondeak, 128m. 'ko zeppelin, biribilla eta aluminiozkoa egin eban. Gero antzeko beste asko egin ziran Alemania'n naiz London'en.

1929n. urtean Zeppelin'ek lur osoa inguratu eban eta 24 egunean 35 000 km. egin ebazan

Egazkiñak asmatu ziran, urterik urtera obeak, baiña orretarako egin ziran alegiñai eta lortu ziran ondamediai beste idaz-lan bat eskiñiko dautsegu. Merezi dau gizakien olako alegiñak eta lortu daben ondoren zioragarriak. Zenbat egazkin eder gaur munduan!

OLAZAR'tar Martin'ek

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebago orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

# ARABAKO ARTZAIEN BATZARRAK

Aurten garrantzi aundiko liburu mardula argitaratu digu Jose Antonio Gonzalez Salazar apaizak; ARABAKO ARTZAIEN OITURA ZARREN jakintsua dugu. Gasteizko semea da, 1940'garren urtean Gasteizen jaioa, apaiztu ondoren erri txikien serbitzari izana; bai Bernedo inguruan et gero Zuiako ibarran.

Erriaren jakintza nai zuan ezagutu ta amar liburu idatzi ditu Arabako toponimiari buruz. Erriz erri zebillen oñez, izketan eta izketan erriko semiekin. Berri asko bildu ditu eta bearrezkoak Arabako lurraldeak

ondo ezagutzeko. Batzarrezko lurraldeak geienak ikusi ditu. Lurralde ta mendi baso geientsuenak, bizpairu errien artean, daude zainduak: erderaz PARZONERIA izenarekin daude ezagutuak. Lurralde oiek ez dira etxe baten ondasunak, bizpairu errien artean zainduak dira baizik. Zarren oroitzetik orrela daude ezagutuak.

Orrelako lurraldeak asko dira Arabako mendi aldean; ezagunena "Izki" izenekoa. Goiko aldean bederatzirrika daude eta beko aldean zazpi. Mugarriak eta zaindariak dauzkate erri batzar ezagunetan. Arduradunak izendatzen dituzte billerak egiteko. Axxkoli izeneko arkaitzpean, egun berdiñetan biltzen dira.

Batzarre bakotxak dauzka berak sortutako ARAUAK. Erriska bakotxak izendatzen dituzten batzordekide bana eta zazpi errietako danen artean alguazilla. Beste billera MARTINARRIKO TOKIAN egiten dute. Ordaintzen dizkie aldiro ardua ta ogia eta bina bost orrialdeko.

Zarata ta eztabaidak sortzen ziranean pakea sortu bearra ta beren artean sortu bearra, lendabizi.

Iru mailleko auziak zituzten eskuartearen ezberdintasunak zuzentzeko.

Lenengo mallan auziak gogoan euki bearrak zituztenak ziran batzordekideen artean ezin zuten aztu, adibidez, surik ez pixtu oianetan. Mendiari sua ematea oso gaizki ikusia zegoen; eta ere, ezkurrarik ez biltzea. Danen eskubideak ondo zainduak zeuden. Eztabaidak sortzen ziranean, oitura zarrak eutsi ta eskua eman bearra. Batzordekideak iruna txerri eraman zezaketen mendira. Aritzak botatzea oso debekatua zuten. Otsoak eta artzak gaiztakerietan zeudenean, danen artean garbitu bearrak zituzten.

Batzar nagusietan demak edo zaratak sortu ezkerro edo eztabaitak ixildu bearra zegoen bertako batzordeen auzitegian.



UTSUNETAN bigarren mallan iritsi ezberdiñak zuzentzeko ba dauzkate izendatuak erabakien zaindariak jautietarako, bai baitegiak eta multak ondo eratuak.

Auzitegiko bigarren mallan arkitzen ditugu oituren zaindariak, oien artean gallurra arkitzen zutenak, zaldunak dira; batzuek, bertako nagusitza zutenak, jauntxoak eta abar.

Auzitegi oien erabakiak ez zituztenak gogo onez artzen zeukatzen erregearen auzitegia, danez gain VALLADOLIZKO AUZITEGIA, goimallako kantzillaria. Gizon oien erabakiak azkenak ziran.

bakiak azkenak ziran.

Jose Antonio Gonzalez Salazar apaiza, iru auzitegi oietan lanean ibilli da Valladolidko auzitegiraño, eten gabe.

Aipatu bearra daukagu liburu onetan jasoa dagon alderdi berexi bat; itz batzuek ondo azpimarratuak agertzen direnak euskeraz daude idatziak.

Itz batzuek liburu onetan agertzen diranak, naiz gaur erdaldunak izaki, lurralde auen mugarrien izenak euskeraz gorde dituzte. Ara emen eredu batzuek:

“AXKORRI” = (AX-KORRI)

“GAZTELUARAN” = (GAZTELU-ARAN)

“BUSTURIA” = (BOST-URI)

“EZKERRAN” = (EZKER-AN)

“MARTINARRI” = (MARTIN-ARRI)

“ZUBIBIURTU” = (ZUBI-BIURTU)

“BELABEA” = (BELA-BEA)

“ITURRIGAIZTUA” = (ITURRI-GAIZTUA)

“MANDAGAYVIDEA” = (MANDAGAY-BIDEA)

“MENDIZORROTZ” = (MENDI-ZORROTZ)

“LANDALUZZEA” = (LANDA-LUZZEA)

“ARRECHANDIA” = (ARRECH-ANDIA)

Naiz gaur lurralde auetan euskara galdua izaki, ementzen ditugu izkuntz zar onen aztarna garbiak, garai zar baten ezaugarriak diranak bizirik.

Ez da arritzekoa Euskaltzaindiak Jose Antonio Gonzalez Salazar APAIZ JAKINTSUA ikerketako taldetan sartua izana. Langille amorratua bezala Arabako euskal aztarnak ditu ugari bilduak. Euskaldun benetakoa dugu, gañera langille ziñezkoa.

---



---

# TXINA

---



---

Ez dogu guztiok eta beti eukiten aukerarik munduko bazter ederrak ikusteko, baiña geure irudimenagaz joan geinteko urrutiko toki orreitera.

Lurraldeak eurak izango dira ikusgarriak, baiña baita bertako oiturak eta kondairak eta beste gauza asko jakiteko aukerea be jakingarriak izaten dira eta oneik liburuetan aurkituko doguz, orrelan irudimena eta irakurketa alkar-tzen doguzala.

Bederatzi ekiñaldi egingo doguz zoragarria dan sortalde urrutiarri begira, idazpuruak oneik dirala: 1.- Txina. 2.- Tibet. 3.- Mongolia. 4.- Mantxuria. 5.- Siberia. 6.- Korea. 7.- Japon. 8.- Formosa. 9.- Pilipiñak.

## Lurraldea

Txina lurralde oso zabala da eta milla milloitik gora bizitalde dauz.

Ibai nagusia Yan-Tse-Kiang edo ibai urdiña da. Au Imalasia mendietan jaio eta biurgune asko egin-ondoren sortaldeko ixasora sartzen da. Ibai onen ertzetan bizi dira biztanlerik erdiak. Itxasoratzean ugarte bat dauka barruan eta Hong-Kong bertan

Hoang-Ho ibai oria da eta Iparralderantz dauko bere bidea. Onen inguruan dago ango gizakien iturburua eta bertan ugari dagoz koko sedagilleak masustondoetan. K.a. ´tik 2000 urte lenago sedea ugari egoan lurralde onetan, baiña artzain lapurrak ziran nagusi inguruetan eta 230 urte K.a. ´tik Hong-Ti agintariak arresi aundia egiteko agindua emon eban eta egin be egin zan 3.600 m. ´ko luze-rea dauan arresi ori.

## EDESTIA

K.a. ´tik 1765n. urtean Txang sendia zan erregetzan. Orduan ikasi eban idazten.

Arrezkero errege-etxe asko eta ezagunak izan ziran eta erriak sortu ebezan, anai-arte-ko guda asko egin, basatien sarrerak kendu, uriolai aurea emon, gose-aldiak azpiratu, izurriak igaro... Geienetan Mongolia ´tik etorten ziran are-rioak, zaldizko basatiak ziran, eta Genkis Kahan geratu zan nagusi.

1279n. urtean Kublai Khan jarri zan agintari: Onek biurtu eban Txina orduko ludiko erririk indartsuen. 1275n. urtetik 1292n. ´era joan zan ara Marko Polo eta ango barriak ekarri ebazan Benezia ´ra eta Europa osora. Sarritan entzuten da berak asmautako gauzak dirala asko.

1655n. urtean Mantxuri ´tarrak sartu jakezan eta berreun urtean agindu eban. Orduan indartu zan salerosketa, batez be Europa ´gaz.

Guda bat izan eban Ingalterra ´gaz, opioaren arazoa zala-ta. Eta beste bat Japon ´gaz, onek Korea kendu nai eutselako..

1900n. urtean izan zan Boxers ´en matxinada, Txina ´tik atzerritarrak botateko, baiña Europar talde batek menperatu zituan.

1911n. urtean matxinada baten bidez Mantxuria ´tarrak jarri ziran agintari baiña erregetza kendu eta erkala edo errepublikea jarri eban.

Aldi orretan bertako kultura indartu zan; filosofia, olerkaritza, eder-lanak batez be margolaritza ta potzelanalanak, etxegintza eleizak eta erriak egiteko, sedea ta polborea, papela, ajedreza, laka, irarkola edo inprenta eta beste gauza asko sortu ebezan.

Munduko guda nagusi bien bitartean, Txina ´n bizitzea larria izan zan: Gudak erkien artean, legegabekeri asko, komunistak lagun zirala. Giro orretan egozala, Japon ´ek eraso eutsen Txang-Kai-Txek buru zala. Zazpi urteko guda izan eban eta Txina ´tarrak milloika iges egin eban mendietara.

1944n. urtean txinatarrak ezin ebezan alboratu komunistak eta onek Txina osoaren jabe egin ziran eta Txang-Kai-Txek Formosa ´ra baztertuta geratu zan.

Eta eldu gara gaurko girora: Europa ´ko ta sartaldeko oiturak onartu dabez komunismoa itzi barik eta gaur Txina munduko azokarentzat arrisku aundi bat da, salgaiak oso merke dakazelako azokara. Etorkizunak zer ekarriko dau? Txina munduko gizartera adoretzu sartuko da.

## BIZTANLEAK

Egoaldeko txinatar asko atzerrian aberastu egin dira eta batzuk euren “lur on”era biurtu dira lasai bizi izateko.

Iparraldeko txinatarrak biziera gogorra dauke: Mongoliatarren eta Mantxuriatarren odola dauke, ez dira egoaldekoen antzekoak.

Antxiñatik sendia izan dabe oiñarri, gertu egoten dira euren etxeagaitik bizi emoteko be, geiago aberriagaitik. Semeak dabez alabak baiño maiteago, etxearen izena eurakaz joaten dalako.

Etxe-barruan amama da agintari eta aitita kanpoko arazoai buruz arduratzen da

Neskak etxean etxeko lanak egiten dabez eta maitagarri biurtzen dira. Gero gurasoak gertatzen dautsee ezkontzea eta gizon barriaren etxera joaten dira eta onen ama egiten da euren jabe. Lanean gogor ekingo dau bera ama-geñerraba izan arte.

Umoro oneko jentea dira, jente zuzena.

## ERLEJIÑO

Etxe bakoitzean altara bat dauke, inguruan iru intzentsu-leku eta or gurtzen daben jainkoa TOTEI da. Lurreko jainkoa da eta etxea zaintzen dau.

Tso Kuan sukaldeko jainkoa da eta burrukea galerazten dau, ez da laguntzaille.

Buda India'n jaio zan 2 500 urte dirala, baiña Txina'n geiago zabaldu dira bere irakatsiak: Emakumea goratzen dau, pazientzia eskatu, eta beste sari asko emon.

Konfuzio (551-479 K.a.) jakituna da geiago erlejiño-sortzaillea baiño. Bere irakatsiak oitura biurtu dira Txina'n, gaur ildakoen oroipen dira: Illaren arimea etxean dago beti eta lagundu egiten dau.

Lao-Tse (600 k.a.) laoismoaren sortzaillea da. Onek gizonari mugak kentzen dautsoz, ildakoak gogoratu, gauza guztiak arimea dauke. Ortik datoz sorginkeriak, deabruen bildurra, izua...

Askoz geroago eldu ziran ara kristiñauak eta onein edestia ez da gozoa: Bertako oikuneak ez ziran onartu (misiolari ziran josulagunen aurka) eta gaurko komunistak bertako eleizea, Aita Santu barik, nai dabe. Ba-dagoz gaur konponbideak. Asko poztuko gintzakez oneik ondoren ona izateagaz.

## OSAGILLEAK

Giza-gorputzari ez jakola ikuturik egin bear uste dabe Txina'n eta ortik eragozpen aundiak daukez osagilleentzat. Onein lana itota dago Txina'n.

Pekin'go eleiza baten brontzeko asto bat egoan eta edozein gaiso osatzeko asto orreri ikutu bear eutsen, gaisoak min daukon lekuan eta Txina'n itsu asko dagoan lez, gaur asto arek ez dauko begirik.

Osagilleak "Sendagillearen anderea" deritxona eroan bear dau aldean eta emakumeak irudi orretan adierazoko dabe min non dauken eta janari edo edari bareizi batzuk emongo dautsoz osagilleak, gaiso bakoitxari dagokiozanak.

## SUKALDARITZA

Janariak ondo gertatzen zaleak dira txinatarrak.

Arroza eta arrautz-opilla, arrain-pizka bat eta txarrikia edo oillokia dira geien jaten dabezan gauzak.

Sukaldeko tresnak sorbaldan dabezela ibiltzen dira janari-saltzailleak eta orrelan saltzen dabez janariak. Beste batzuk janariak saltzen diran etxe-aurrean itxaroten dabe katillukada makarroia edo arroza daukela.

Jateko banbuzko zotzak erabilten dabez.

Jatetxeetan egun bi jarraian be egoten dira.

Bazkaltzen daben artean, soiñuak eta abestiak entzuten dira zaleak.

Gure uri guztietan daukaguz txinatarran jatetxeak. Onak dira.

## URIAK ETA ERRIAK

Hong-Kong da uri eder bat. Au oraintsura arte Ingaltterra'ren menpean egon da.

Ugarte arritsu baten dago eta bere mendi-burua beti laiño estalduta agiri da. Kai-aldean kale bardiñak dagoz ugari eta onein unguruan be bizi da jentea. Gorago dagoz aundikien bizi-lekuak.

Kaia bizia ta zaratatsua da, askotariko ontziz beterik eta jentetzaz bero beti.

Beste kai batzuk Europa'koen antzekoak dira: Shanghai da nagusia.

Aginterien erri Pekin dogu, eun arresidun erria. Sale-rosketa aundia dauka eta eleiza, jauregi ta pagoda ederrak.

Olako erriak eundak dagoz Txina'n: arresiak, pagodak, torreak, eleizak, jauregiak eta abar.

## OITURAK

Txina zarrean gizon bakoitxak andra bi eukazan, bata "oin aundikoa" etxeko lanak egiteko eta "lilizko oinduna" bestea, apaingarri izateko.

Senargaiak txarri bat emoten dautso emaztegaiari.

Ezkontza ospatzeko alkarri lotutako edan-ontzi bitatik edaten dabe arroz-ardaua.

Aberats bat ilten danean, argi-ontzi aundi bat erabilten dabe buruan, kalerik kale, eriotzearen barria emoteko. Ontzi orretan idatzita dagoz ildakoaren izena, urteak eta egin dauzan gauza onak.

Alkarrari makurtuaz alkar agurtzen dira txinatarrak, bakoitxak bere eskuak estututa daukazela.

Isekatzeko, jantzien ertzak astintzen dabez.

Onelan egin dabez asmakuntzak: "Ave Fenix" da egaztien erregea, unikornioa abererik indartsuena, dortoka da gudari baltza, eren-sugea agintarien irudi lez agertzen da.

## ZUGATZAK

Txina'k \_ bizilagun nekazaritzan daukaz eta landu lurraren 1/8 .

Si-Ling izan zan agintari baten emaztea eta onek 7 zm. 'ko kokoa atera eban bere buruko garunetatik eta orregaz kirru bat egin. Orrelan ikasi eban aria batzen eta sedita egiten. Sedearen asmatzaillea da., baiña konturatu zan arek mastusa-orriak jaten ebazala. Landara onek garrantzi aundia dauka Txina'n.

"Txina'ko idarra" janari motela da, baiña onen orioz bazkari asko gertatu dira. Janari ona da eta aragiak baiño bitamina geiago dauka.

Tea mundurik erdiak edari nagusia dau eta au be Txina'tik etorria da. Irakin ezkerro te gorria da eta irakin barik te orlegia. Etxealboanbaratzbat eukiten dabe arresiz inguratuta eta barruan pagoda bat eta etxe bat.

Piñuak eurentzat aunditasuna adierazten dabe, sartzak doia, mertxiko-landarak eta aran-ondoak alkartasun-



na, banbuak zintzotasuna, liliak aberastasuna, orki-loreakjakintza, magnoliak birtutea...

### **PIZTIAK**

Ur-txakurra da andren laguna Txina'n, kirkillua aberasgarri jake eta oneintzak kaiolak daukez.

Tibet'eko auntza, Afrika'ko ñu'ren antzekoa da.

Katamotzak ugari dagoz leiza zuloetan, batez be egualdi beroak diranean.

Pekin'go usoak txilibituak daroez buztanean eta zelakontzertuak eratan dabez!

Ate-txakurra dauke K.a. 'ko 150n. urtetik.

Panda artz txiki baten antzekoa da, oso ospetsua munduan.

Ugadera arrantzale ona eta bizkorra da.

Zamo Txina guztiko piztia da, baiña alperra.

Alkoiak edo zapelatzak daukez eizarako.

### **JAIK**

Lau milla urte dira Txina'n egutegia daukela.

Urtea lenengo iretargi beteagaz asten da eta egun orretan pizti edo landaren etxurako argi-ontziak erabilten dabez urtea asteko. Urtebarri egunean jentea eleizetan batzen da eta intzentsua eskintzen dabe, al danik laino-tsuena, aberastasuren jainkoaren aurrean, aztiak ikusten dira euren maietan kartak daukezela, zori-jokoak egiten dira ugari jostailuakaz, leoi jantzita ibiltzen dira eleizinguruetan eta lotoak botaten dabez uretara.

Uda-azkenean "Beatzikoitz" jaia ospatzen dabe eta kometak botaten dabez.

### **SALEROSKETA**

Denda guztien aurrean errezel edo "kortina" aundi eta balz bat ipinten dabe eta barruko saltoki ta salgaien ize-nak errezel orretan agertzen dira.

### **MUSIKA TA ANTZERKIAK**

Oso antzerkizaleak dira txinatarrak. Antzerki batzuk gudakoak izaten dira, oso antxiñakoak, eta beste batzuk eguneko gizarte arazoak agertzeko.

Antzezlaria zortzi urtekoa dala asten da ikasten, zarrak irakasle dauzala. Antzokiak beti ate bi eukiten dauz, sartzeko bata eta urteteko bestea eta antzerki-denporan beti egoten an orkesta bat.

Antzezlari bakoitzak buruz eun antzerki baiño geiago jakin bear dauz.

Oraintsu asi dira emakumeak lan au egiten. Jazki asko daukez.

### **SOIÑUAK**

Txinatarren musikea zaratatsua eta zakarra da.

44 doiñu daukaz, gureak 24 daukazen antzera.

Eurentzat soiñua zero-lurren adiskidetasuna da.

Munduko soiñu edo musikarik ederrenak dira Txina'koak eta euren eresgaillu ezagunenak edo geien erabiliak txilibituak, turutak, xirribiak, kitarrak, tanboliñak....

### **GARRAIOAK**

Gaurko Txina'k gurdi-mota barriak daukoz baiña orreik erabili arren, bide asko dagoz orreintzat balio ez dabenak, millak km. 'ak.

Txiñatar geienak gizona ta abere zamariak erabilten dabez joan-etorrietarako merkeenak diralako, naiz jentea eroateko naiz gauzak erabilteko. Gaur be olakoak ikusten dira erri txikietan naiz aundietan.

"Ricsa" bizikleta antzekoa da. Pekingo gurdia, estalki udiñagaz, gurdi sendoa da. Astoa antxiñatik dago Txina'n 1275n. urtean Marko Polo baiartean joan zan jauregi-ra, atzean eta aurrean gizona dauala.

Esku-orga sartaldean asko erabilten da, emengo karretillearen antzekoa da eta gizonak banaka eroaten dauz.

Erreketan juko asko dabil. Banbuzko agea be erabilten dabe erreketan batez be. Merkeena eta geien ikusten dana da. Zama bardiña ertz bietan ipiñi bear jako ondo joateko.

### **EDERTIA**

Ederlan oso bereziak daukez Txina'n, oso antxiña egingako lanak diralako.

Kaligrafia ondo dakie eta izkiakaz lerro oso politak egiten dabez.

Margolaritza asko dabille erlejiñoko eta elertiko gaiakaz, ikuspegi ederrak, eleizetako ormak margozki ederrakaz apainduak, Buda asko eta abar. Aberatsen etxeak oso margoz apainduak izaten dira.

Irudigilleak onak dira piztiak egiten: Eren-sugea, txakurrak, leoiak... Arrian, burdiñean, brontzean edo zurean egiten dabez irudi ederrak eta irudirik gurena zaldia lau oiñean doala izaten dabe..

Ildakoen margazkiak be ugari dagoz, eta ereduak eukiten dauz irudigilleak etxeokak erakusteko eta gero berak burua ipinten dautse.

Eltzegilleak: Buztin zuriz egiten dabez lan arrigarriak, lapikoak esaterako eta portzelanan lan egiten munduko onenak dira, gaur be lan oso ederrak egiten dabez

Etxegintzan lerro biurria dabe maite eta irudi orregaz etxe andiak, eleiz eta pagoda mailladunak naiz borda txikiak edo santutegi txikiak egiten dabez. Oneik bide-ertzetan.

# AITITA

## 5N SARIA

Arratsaldero moduan, eskolatik atera eta etxera joaten nintzan aitita zaintzera, edo obe esanda, aititarekin egotera, inor gutxi zaindu nezakeelako sei urterekin.

Auzoko Kosme ere, egunero etortzen zan gurera, eta amarekin itzegiten somatzen neban goiko gelatik:

– Jon etxean dago?

– Bai etxean dago, baina guk soloko bearrak egin bitartean aititarekin egon bear dau.

– Ia ba, ondo dago, biar etorriko naz barrero.

Eta logelako leio azpitik korrika pasatzen ikusten neban.

Aitita ez zan berbalduna, beko su-aurrean orduak eta orduak ematen ebazan egurrak nola auts biurtzen ziran ikusten, bearbada bere bizitza egur orien patuarekin konparatzen. Nik aldiz, burutzekin etxeak egiten pasatzen neban arratsaldea. Noizean bein emoten eban, bakarrik ez egoala konturatzen zala, eta niri begira beti esaldi berdina errepikatzen eban “txarrak dana apurtu eben”. Asieran, jakin-minaz galderak egiten neutsozan, esaldi ori parrafo bihurtu naiean, eta parrafoa istorio:

– Nor da txarra aitita?, Zer apurtu eben?

Baina ez naban lortzen aititak agoa berriro irekitzerik. Azkenean esaldia itz solte multzo bat biurtzen zan, zentzu gabeko esaldia baitzan niretzako.

Niretzako txarrak alboko erriko umeak ziren, eskolako bidean ire artean eskutatu eta bertatik pasatzean arriak botatzen euskuezanak. Eta gure txori abiak lapurtzen euskuezanak. Baina nik ez nebazan ezer apurtzen ikusten.

Egunak pasatu ala arratsaldeak ere luzeagoak ziran eta eguzkiak ere geiago berotzen eban. Nik lagunekaz olgetan joan nai izaten neban. Amak eguraldi oneko egunak aprobetxatuz aitona etartera<sup>1</sup> ateratzen eban eta orduan bai, orduan Sorkunde, Kosme eta Batirtze, auzoko Martinen lobak gurera etortzen ziran olgetan. Aitita egun orientan artezago esertzen zan auklian eta inoiz desagertzen ez zan irrifarre bat zeukin ezpainetan. Gure kanikaren batek bere zapatilen parera ies egiten baeskun, ostiko puntaz berriro guregana bidaltzen eban, oso arro geratzen zalarik egindakoarekin. Orregaitik beragaitik, askotan naita botatzen geuntzazan berak ere apur bat olga dagian.

Ekainaren 13a oso egun garrantzitsua zan errian ekin-tzaz betetakoa zalako. Urtero legez izeba-osaba eta lengusin-lengusuak mezatako orduaren aurretik etortzen ziran gurera. Astrapala eta burrunba asko sortzen eben, elizara joteko prestatzen egozan pertsonak astoratuz.

Meza ostean naita edo naigabe, beti amaitzen genuen osabaren oin azpian olgetan.

– Zeozer gura dozue edateko edo jateko? Esaten euskun osabak.

– Bai, laranjazko “kas”a, mesedez. “Kas” botilarekin batera, konplizitate andiarekin, paga luzatzen eustan, ia nire eskua bestekoa zan bost ogerlekoko txanpona.

– Ez esan amari dirua emon deutsudanik e!, bestela biok sufrutuko doguz zure amaren biraoak.

Guk oso azkar desagertzen genduzan konplizidade orren frogak, errepidean egozan postuetan ain zuzen.

– Emongo deustazu petardo pakete bat?

– “Son diez pesetas”.

Eskua luzatu eta esku bete beteko bost ogerlekoko txanpona emoten geuntsan karamelera zaarri, eta gogo gutxirekin edo erdi derrigortuta emandako diruaren bultak il ala bizi itxaronaz.

Gure len biktimak txakurrak ziran, mamuren bat ikusi baleukie bezala ateratzen ziran korrika, jentearen anekin estropozu eginaz. Baina egun artako biktima ez zan edozein txakur, nire lagun Martinen etxeko txakurra zan, eta gure zoritzarrerako, estropozu egin arazi eutsien anak Martinen aitarenak ziran, Antonenak ain zuzen. Anton oso serio urbildu jakun baina gure kontra egiteko asmo barik.

– Mutilok, egiten duzuen au ez dago ondo, naiz eta neuk bere egin dodan, baina orrek ez dau esan nai ondo jokatzenebanik.

– Barkatu Anton. Atera jatan aots dardarati eta fin batekin.

– Lasai, ez da ezer gertatzen, baina zin egingo daustazue ez zariela animaliekin berriro dibertituko. Beste gauza bat, gaur arratsaldean, bazkaldu ostean, nai baduzue gurera etorri al zarie.

Ia geienok arratsaldean batzekotan itzuli ginen bakoitza bere atxeoengana.

Arratsaldeko seiak bueltan, Martinen etxean ginen, barrero bere alkarrekin. Martinen aitak, Antonek, erleak eukozan eta berarekin eraman ginuzen mendi aldera, erleei urte guztiko lanaren emaitza kentzera. Sukaldean ezitia nola lortzen zan begira gengoza, Martinen aitona gerturatu jakun, inguruan zeukan gazteriaren jakiminetan. Martinen aitita nire aititaren adin beretsukoa izan arren gazteagoa zala emoten eban, begietako disdira eta buru arintasunaren jabea zalako oraindioko.

– Nortzuk doguz mutiko praka motz auek?

Martinek banan-banan aurkeztu gintuen, aititak al zuen eta obekien ulertzeko datu andana gaineratuz. Nire abizena eta baserriaren izena entzun ostean zera esan eustan:

– Zuen aitita zelan dago? asko sufriturikoa da zuon aitita ba!

Ni ixilik geratu nintzan, ixiltasun orrek datu geiago emango eustazalako ustean. Martinen aititak, ederki somatu eban nire ezinegona eta onela esan eustan Martinen amari:

– Katalin, gure etxean egongo da ba mutiko onentzako zeozer?

Ori esan ostean, nire eskua artu eta egongelara abiatu ginan. Aitita bere besaulki zaarrean eseri, eta zigarro bat egiten asi zan poliki-poliki, era berean buruko ideiak

<sup>1</sup> Atarira

ordenatuz eta itz egokiak b ilatzen saiatuz. Gu bitartean, lurrean eseri ginan, txakur eta katu artean.

Samako lakarrak kendu ostean onela asi zan aitita. 1937ko apirila. Astelena. Zure aitita eta amona erriko beste ainbaten moduan asto otzarak plazako generoz bete eta Gernikara joan ziran. Zigarroa agora eraman eta ke guztia birikietatik kanpo zeukanean onela jarraitu eban. Zure aiti-tak kontatu euskunagaitik, jakin badakigu, Gernikara eldu aurretik ez eben somatu ere egin zer izan eitekean. Alaber Andra Mariko elizaren ingurura iristekotan zireala, egazkin errraldoi batzuk ikusi ebezan, bonba mingarriak txistuka askatzen. Beldurraren beldurrez, eta sirena otsen erdian, Lumorako bidea artzea erabaki eben zure aiti-tak eta amonak, gainera etorkiezan bonbei ies egitearren. Ezinezkoa gertatu jaken ala ere urruti joatea, beraien gainetik, oso gertu pasatzen zirealako egazkinak. Ori dela eta, karkaban eskutatu ziran, ildako astoaren errimura. Konturatu zirane-rako Lumotik bera, Gernikarako bidean ezagun bat joiala, Tomas errementaria, Errigoitioa bera, alto ematera joan ziran. Gernikara ezin zala sartu azaldu eutsen, baina Tomasek esandakoari jaramonik egin barik zera esan eutsen:

– “Vamos a ver lo que hacen esos bichos!”

Andik bi ordutara astoa bakarrik itzultzen ikusi eben, bere ugazaba il ebenaren berri emanaz.

Martinen aiti-tak eskua altxatu, eta txorikumeek janaria eskatzeko egiten daben antzera, agoa zabaldu eta zigarro erdi amaituari beste agokada bat eman eutsen, gure pazientzia frogan jarritz.

Txarrena pasatu zanean errirantza etorri ziran zure aiti-ta eta amona, baina noizean bein atzera begiratzen ebe-

nean, zerua gorri-gorri ikusten eben Gernika aldean, inolako errurik gabe eta tupustean ildako jendearen arimaz gain, odola bera ere zerurantz igoko balitz modura. Egindako sarraskia kilometroetatik ikusi zeitekean, eta jenteak beren biotzetan gorde dagian ikusitako ori, irudi ori bizirik mantenduz eurok ere bizirik iraungo dabelako.

Errira iristean jente asko falta zala ikusi eben, batzuk Gernikara joan eta oraindik bueltatu gabe. Beste batzuk, ez ziran inoiz geiago bueltatuko, Tomas errementaria kasu. Eta asko eta asko, Oiz´etik etortzen ziran egazkinei ieska, mina zuloetan gordeak egozan. Egun luzea izan zan astelen aretakoa, eta gaua ere inoizkorik eta luzeena izan zan, lorik egin ezinean pasatu bai gendun iluntasuneko tarte ixil eta otz ura.

Martinen etxe-koak agurtu eta baserrirantza noiala, sentimendu ezberdinen anabasaren jabe egin zan nire burua. Alde batetik poztasuna, izan ere, aiti-tak bein eta berriro esaten eustan “txarrek dana apurtu eben” esaldiak, orain zentsua eukalako niretzat. Tristura ere sentitzen nuen bestetik, egun aretan il ebezan pertsona guztiak gogoratzean, zenbat familia apurtu ebezan pentsatzean, aitona gabe geratu ziran bilobak imajinatzean.

Etxera sartu bezain laster, amari ia kasurik egin barik aiti-tarengana joan nintzan, eta besarkada bat emonaz:

Orain ulertzen deustut, ez zara arraroa, ez zagoz zor-  
tuta, esan neutsan leunki belarrira, aiti-tari begi bietatik malko bero banakak ies egiten eutsoen bitartean.

**ZIORTZA ARRIEN ORBE**

Donostia'n Jorrailla'k 5 (ala uste dut)

Olazar'tar Martin jaunari. Adiskide maite:

Etzaitut aurpegiz beintzat oso ezagun, baiñan bai ZER'en bitartez. Zurea, oso zurea dan aldizkaria pozik artzen dut. Baiñan azken ale onek ba'dakar zerbait zuri erantzuteko erakoa, oso erakoa, alajaña! Txeluri buruzkoa da. Nik, (aspaldiko kontua da) urte asko dira Donostia'n ezagutu nuela eta bein batean euskal irrati bat entzuten ari nintzala, orko batek euskeraz egin zion eta baita onek erantzun euskeraz (pozik entzun nuen) Euskeraz jakite onek asko poztu ninduan. Eta nere artean esaten nuen: mutil au nerekin ibillia zan Donosti'ko alde zarrean eta bearbada gogoratuko da, gogaietan berdin-berdiñak giñan-da. Garai artan oso jatorra iruditu zitzaidan eta ortik dator berarekin nere itzegin naia. Gogoratzen ote da? Ni lengoxea naiz, zarragoa ori bai, bearbada Txelu'ren adin-kide. Eta orduko izketaldiak etorri zitzaizkidan burura. Eta berarekin arpegi-arpegi berba egiteko gai ez naizenez nere besarkada beroa eman dezaiozula eskatzen dizut mesedez. Nere emengo lagunak, Txelu'k ezagutu zituanak, aspaldi joan ziran Gora. Ni ere noiz pait joango ote naiz? Gaur alargun naiz, 27'an betetzen ditut 87 urte. Eta esaiozu burura datozkidala garai artako izketak eta biotzetik zerion abertzaletasuna. Ludian ez bada, zeruan alkar ikusiko dugula.

Eta orain ikusmena oso galduta omen du. Gizajoa. bijoakio berriz ere zure bitartez nere besarkada.

Eta bukatzera nijoa, nerekin izketan ari bai dala iruditzen bait-zait. Begoña'koa dala ba'dakit. Nere emazte zana ere Begoña zan izenez eta onek asko lotzen gaitu.

Zu, Martin, ezagutu zindudan Latxaga'ren txangoketa batean eta itz bakar batzuk esanda banatu giñan.

Idazki onen bitartez zurekin, TXELU, daukaten lotura etzait iruditzen bat ere apurtuko zaidanik.

Agur Begoña'ko Ama, Agur Martin eta Agur Txelu. Nere otoitzen etzaitut beñere aztuko.

Ni, garai zar artan, Alde zarrean bizi nintzan. Geroztik asko ibillia naiz. Eta baita bizitu ere Benezuela'n.

**EGAÑA'tar GOTZON  
BALLENEROS 8, 8º, C  
DONOSTIA - 20011**

---



---

# SALMOAK

---



---

**98N. SALMOA: ANDRA MARIA'REN ERIOTZ ORDUA**

1

Jarraitu zagun Ama Birjiña  
lurrean bizitzen zala,  
eldu zanean irurogeita  
zazpi urte zituala.  
Lurrean auspez otoitz egiten  
zenakulon zeguala.  
Gabriel santuk aingeruakin  
onela esan zuala.

2

“Agur, María, gure Andrea  
nator Jaunak biralduta;  
laister eguna elduko zaizu  
zaudena deseatuta.  
Gaur iru urte biziko zera  
zeruko aintzaz batuta,  
zure seme ta gure Jainkoak  
eskui aldean artuta.

3

Amak entzunda auspez lurrean  
erantzun zion onela;  
“Egin bedi, ba, neregan ori  
esan didazun bezela”.  
Es-katu zien aingeruari  
es-kertzen lagun zeuela,  
bi ordu pasa bertsok kantatzen  
Amak austen zituela.

4

Joan santua berekin zeukan  
seme zala serbitzeko,  
es-katu zion bere baimena  
itz batzuek esateko:  
“Nere seme joan, eskatzen dizut  
nere alde es-katzeko,  
iru urte falta ditut eta  
lur erbeste au uzteko”.

5

Ama Birjiñan azken egun  
zala urreraturikan,  
Pedro santua aingeru batek  
ekarri Erromatikan.  
Eskatu zion bedeinkatzeko  
belauniko jarririkan,  
Ama seguan zenakuloan  
indarrak gutxiturikan.

6

Paulo santua zan urrengua  
Ama ikustera juana,  
saludatuta bedinkatzeko  
Amak eskatzen zuana.  
Apostolu eta ikasleak  
ziran juanak Amagana  
iru egun aurrez betea zan  
zenakulo etxe dana.

7

Pedrok eskatu: “Eseri zaite  
tariman itz egiteko”.  
Bere baimenaz jeiki egin zan  
eskatu bedeinkatzeko;  
Aita Santua zalako  
bere pekatuak barkatzeko.  
bere oiñari nun eman zion  
zala negarra sortzeko.

8

Zuek jarraitu erakutsitzen  
Seme Santuan esanak,  
bere bizitza ta eriotza,  
egiñaz Eleizan lanak.  
Zerura nua baiñan zerate  
aztuko etzaituetanak,  
zuk, Pedro, Aita santuak, zaitu  
nere seme Joan ta danak”.

**99N. SALMOA: AMA BIRJIÑA IL ZAN**

1

Aitaren aintzan nere onduan  
lekua dezu betiko,  
sortu ziñutan kulparik gabe  
nere Ama izateko.  
Orain ez daukazu deretxorik  
mundu onetan iltzeko;  
nai ez badezu, atoz nerekin  
beti pozez bizitzeko”.

2

Birjiñak auspez erantzun zion:  
“Nere Seme Jaun maitea,  
eskatzen dizut: bestek bezela  
nai det illa izatea.  
Zuk Jaungoikoak nai izan zendun  
supritu eta iltzea,  
justua da zuri jarraituaz  
iltzen ere laguntzea”

3

Ontzat arturik erantzun zion:  
“Egin bedi nai duana”.  
Orduan bertsolari izan zan  
aingeru-taldea dana.  
Abestu zuen soiñu ura zan danak  
poztu zituana,  
etxea bete zan usai gozoz  
ta kaleraiño zan juana.

4

Aingeruak kantatzen astean  
zan etzanda ildakua,  
bere tariman eskuk batuta  
ta tunika pegatua.  
“Jeiki zaitez, ba, nere ederra”  
aingeruak kantatua.  
“Zure eskutan jartzen naiz, Jauna,  
ta zan ilda gelditua.

6

Pedro ta Joanek gorputz santua  
eldurik tunikatikan,  
bere anima onduan jarri  
zuana zan Seme Jauna  
Bere gorputza gelditua zan  
guztia argitasuna,  
bere urteak irurogei ta  
amar urrean zituna.

8

Arri losakin itxi zioten  
obi-lukuan atea,  
aingeru talde eta santuak  
nai izan zuen juatea  
ta bere milla aingeru aiek  
beren lana egitea.  
Jarraitu zuen soiñuak jotzen  
pozgarri zan entzutea.

5

Bera il zuan gaixotasuna  
zan bakarrik maitasuna  
bere anima onduan jarri  
zuana zan Seme Jauna.  
Bere gorputza gelditua zan  
guztia argitasuna,  
bere urteak irurogei ta  
amar urrean zituna.

7

Eldu ziraden gorputz santua  
enterratzeko lekura,  
Pedro ta Joanek artua zuen  
gorputza lengo modura.  
ipiñi zuen obi-lekuan  
Amaren gorputz il ura,  
tapatu zuen toallarekin  
zalako beren oitura.

---

### 100N. SALMOA: ANDRA MARI, GORPUTZ ETA ARIMA, ZERUAN KOROATUA

1

Zerutar soiñuk ixildu ziran  
irugarren egunean;  
anima santa zerutik jetxi  
ta gorputza ikutzean,  
Ama Birjiñan gorputz santua  
piztua zan istantean,  
orretarako bere baimena  
Seme Jaunak ematean.

4

“Nere Emazte bakarra eta  
aukeratu gendua,  
egin bearrak zituan danak  
ondo egin zituana,  
zor zaio Erregiñan koroia  
betiko izango dana”  
Irutasunak ipiñi zion  
koroï ederrena zan.

7

Erregiñaren petxu barrua  
izan zuen agertua,  
globo-itxuran eder dizdiraz  
Jesus Sakramentatua.  
Santuak zeuden pozez ikusten  
arrigariz gertatua,  
izan zalako sagnarioa  
Ama Birjiñan petxua.

2

Irutasunak daukan tronura  
Birjiña zan eramana,  
Betiko Aitak esana zion:  
“Igo, maitea zerana”.  
Seme Jainkoak: “Ama nerea,  
neri gorputza emana,  
lanetan lagun izandu zera,  
artu orain ordain dana”.

5

Koroï eder au aintzazkua zan  
brillante baliokua,  
zeru guztiak ain ederrikan  
zan ikusi gabekua,  
ta iñoiz ikusiko ez dana  
Amari jantzitakua,  
eta entzun zan Irutasuna  
Onela esandakua:

8

Entzule danak ontzat arturik  
Aita Santuan esana,  
jasoa zuen arri-los ura,  
zala berak nai zuana.  
Eldu ziraden ikusitzera  
ta zan utsik zeguana,  
bere tunika utsa zeguan  
gorputza zan piztu zana

3

Jaun Espiritu Santuak esan:  
“Poztu Emazte maitea.  
Pasa zan egun supritzekua,  
bizi gurekin batea”.  
Ama Birjiña gelditua zan  
Jainkotasunez betea,  
auxe izan zan santu guztiak  
poz geiago izatea.

6

“Gure laguna, danen artean  
zerana aukeratua,  
gure erreinua zurea dezu  
dana dezu mendekua.  
Zu zera, Andrea, Erregiña  
entzun ta agintzekua,  
graziz betea zeudela ziñan  
umillena agertua.

**ALDALUR'tar Justiñe**  
(klaratarra)  
(Gasteiz)

**BIZKAITARREI BIZKAIERAZ**

## III ALDIA: LARRAMENDITARRAK MANUEL LARRAMENDI (1690-1766)

XVII gizaldiaren azkenerantza agortu-antzean geratu zan iparraldeko idazle zarren idazkerea eta Aita Larramendi'k sortu eban egoaldeko lorategi ederra.

Larramendi euskal elertian erradoi bat dogu.

Egia esan, ez eban berak asko idatzi euskeraz. Baiña bai erderaz lan ederrak euskereari buruz. Berak sortu eban euskerearen apolojisten aldia. Oneik euskerearen alde idazten dabe, baiña erderaz.

Orduko euskerearen arerioak azpiratzeko artu eban erderazko jokabidea. Gogoratu bide orretan antxiña Emerik Pikaud erromeslariak esana, euskerea izkuntza basatia zala eta geroago Mariana edestilariak esana, euskerea gramatika-ra ezin sartu leikela izkuntza basatia dalako.

Olakoen aurka jokatu eban Larramendi'k Eziña egiña (Orixe'ren euskeran) edo El imposible vencido agertuz.

...

Andoain'go Garagorri baserrian jaio zan Larramendi eta amaren abizena artu eban. Aita Txomin Garagorri zan.

Bilbao'n sartu zan josulagunen artera 1709n. urtean eta andik urte bira Villagarcia de Campos (Palentzia'k) egin ebazan botoak.

Balladolid eta Salamanka izan ziran bere ikastetxe nagusiak eta eurentan ikasi eta irakatsi eban. "Irakasle aundia" esaten eutsoen. Izlari ona be ba-zan.

Izaeraz bizia ta alaia zan, urduria be bai.

Sasoi orretan idatzi ebazan euskerearen arerioen aurka liburu bi: "De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España" 1728, eta euskerea gramatikara sartu leikela adierazteko El imposible vencido edo eziña egiña deritxon gramatika.

Iru urtetan izan zan (1730-1733) Maria Ana Erregiñearen autor-entzule Baiona-ondoan. Urte orreitan idatzi eban "Discurso histórico sobre la antigua famosa Catabria".

1734n. urtean asi eta 1766n. era arte Loiola'n bizi izan zan lan eta lan. Antxe il be egin zan Aita Kardaberaz alboan ebalan.

Emen idatzi eban "Diccionario trilingüe" ospetsua, gaztelera, latinez eta euskeraz.. 220 orrialdeko sarrera bat dauko.

Era bitako itzak daukoz iztegi orretan, batzuk errian eta liburuetan artuak eta beste asko berak asmatuak, baiña ez dau esaten asmatuak zeintzuk diran

Aurpegira botaten dautsoe berak ez esatea zein euskalkitan artua dan berba bakoitza, baiña berak euskerea batzeko egiten dauala ori diño.

"Corografía" (1882) da bere beste liburu bat. Emen gipuzkoa'ko dantzak aztertzen dauz..298 orrialde dira.

Argitaratu barik dagoz ainbat lan: Teoloji-gaiak, kartak, euskera-erdera iztegia (amaitu bakoa), dantzai buruz beste

lan bat, Gipuzkoa'ren edesti laburra, Igokundeko Martin Deunaren bizitzea.

Oneik dira berak euskeraz idatzitako lanak:

- Mendiburu aitari eskutitza.
- Sebastian Gandara'ri eskutitza.
- San Agustin'en gorapena
- Astete'ren doktriña.
- Olerkiak.

Larramendi'ren euskerea be txastatu daizun, ona emen zatitxu bi:

1.- Amarduna, usakume gizen bat bai aldu eutsonean idatzia:

Baldin ba'da zeruan  
Jaten usakumerik,  
Ezin lizake oberik  
Auxe baiño an ere jan,  
Ha zer usaia zeruan!

Hil bat lezake piztu  
Ezen ez ni sendatu:  
Zer? Uste det aingeruak  
Ziradela gosetuak  
Usakumez zaletu.

Ona emen beste zatitxu bat Korografiatik artuta Gipuzkoa'kon jauntxoan aurka:

"Zer diozute, ero-putzak, buru-ariñak, zer dirauskizozute? Artzen ba'det aitzurra, ta hori geiegi da, artzen ba'det jorrai txiki bat, bigarren zotalean agertuko dizutet, ez tratlari, ezen, ez nekasari ezen, baita argin, arotz, olagizon, dendari, okin, sagardo-satzaille, ikazkin, zuen etxeetan jaiok, aziak eta biziak. Gipuzkoan izkunde oriek? Eta, alegia, Gaztela'n aditzen zaiotela ta emen ez dakigula odol onaren berri. Ler eztagizutela, merezi badezute ere. Utzi, utzi Gaztelako hizkera txoralda orri: Mairu kutsu, judu kirats, beltz eta billau usai geiegi dabil erri orietan. Oar zaitezte, etxean, Gipuzkoa'n dezutela, iñotara joan gabe, erbestean arkituko ez dezuten garbitasuna. Eta au onela dala, obe dezute alaba txukun hori ezkondu emengo tratlari aberats batekin, ezen ez Gaztelako eta ez besteetako aize, zagi, galbardun askorekin. Ez ni salatu, ta orain agur"

Zati au bai apolojista edo aldelarien eredu!

**OLAZAR'tar Martin'ek**

# BABEL - EUSKERA

## Emendik

Euskalerritik Babel  
dorre ber-bertako  
euskal doñurren bat...  
urrutiko oso urrutiko  
(begiak itxiz  
eta belarri-biotzak  
zearo zabalduz)  
kanta-oiartzunen bat  
ez al dugu entzuten?  
Bai amets ederra gizaldi askotako  
euskerarekin topatzeko?  
Gure izkuntzaren  
jatorria arkitzeko  
dorre artatik  
ez asagora joan  
aberkide biotzeko!  
Gorontze esttu gabe  
dorre inguruan bildutako  
jende ezberdin orrekin,  
izketaz ez zegoen  
ulertzerik, ez konpontzerik  
ez lanak aurrera  
zuur ematerik.  
Eta nai duzun guztia geituz  
esan: ez otordu-lege  
egiterik, ez lo-leku  
gorderik edo babesturik.  
Dena bertan bera  
uzteko modukoa eta  
aldegitekoa.  
Bai, alajaña!  
Dorre inguruan  
bildutako orotar,  
edonundik etorriak  
esku batean makilla  
eta lepoan pardela,  
auskalo nundik  
zori-onean edo gaitzean  
zirutzat jo daiteke  
etorritako denak  
beren oiturak  
izkerak, aiurriak, itzak  
eta tresnak zekarzkitela  
batak besteari  
aopean mintzoz-edo

zerbait esaten zuten  
izketarekin, jakiña!  
beargin artean, oarturik  
orrela etzegoela  
ezertan bat egiterik.

## Izkuntza berriak

Garai gandutsu artan  
eta ludia loi dan  
ezkeroztik,  
bear bezelako  
iri bildu edo erririk  
ezin izan. ezta bearrik ere.  
Etziran berelakoan eratu  
eta leiñu deslai eta  
taldetian bizi ziralarik,  
iri bakoitzak  
izkera landerrez gutxi  
edota doi-doi zegiten.  
Esku-lan eta  
esakun, bizi-molde, ipui  
ta abar zekarzkiten.  
Urtetan barrena  
txutxu-putxuka  
errexenik eratuak.  
Talde-elkarteak, denboraz  
geroago iri izendatuak  
orrelatsu ziran sortu.  
Aietako batean  
or nunbait aurki daiteke  
Ben Yehuda'ren  
jatorriko lenen  
leiñu ta aialdekoak.  
Eta auek ere, zoriz  
norbere nortasun  
motz eta giartu gabean  
indarra artu zuten sari.  
Izkuntzetan zein zarrena  
edo edatuena  
lurra lur dan ezkeroztik?  
Ziurtasun beterik ez da  
baiñan odolmenez  
urbildu gaitzen  
Ganduzkak illundutako  
ale zarretara.  
Adibidez, Ai ene!!!

sanskrito izkuntzaren  
aipamenik  
entzun ez duenik bai al da?  
zerbait ikasiak diranen artean?  
Ez ba jakin dagoanik.  
Auxe da dakiguna:  
Mintzaira onek (auskalo noiz sortua)  
Asia'n arnasartu eta  
sugetzar bezela puztuz  
Ekialdeko inguru guzietara  
zitzaigun edatu zenbat izkutuki!  
Nun jaio zan mintzaira onek  
nun-nai zitun erein ta errotu  
bere aztarnaziak.  
Zorabiozko aize basati eduz  
noranai luzatu zituen  
itsas olagarroen bezelako  
guar luze ordiak.  
Erri txiki ta aundiak  
aspaldi utzi zioten  
(erriotza, oro iresle  
indartsua bait-da)  
nekez erauziak  
sanskritoz jarduteari.  
Eta ez atzo edo eranegun.  
Eta ez zuk eta ez nik  
ez-jakin zergatik.  
Amazazpiren gizamende  
ba'dira jadanik (gau luzea!)  
ixildu ta mututu zala  
asiatar eta guztien ezpafiñetatik  
gaur zenbait jende  
goen klase ikasiak  
eta eskolatuek  
(agur-zurrean)  
ezaguna ba'dute ere.  
Zarathustra'en izkuntza:  
Sei millaren bat urte  
Kristo aurretiko  
denboretan bizi izana.  
(Ai denbora!  
Edozein ekite suntsikorra  
baiño indartsuago dana.)  
Erberkera naiz euskera  
baiño antziñakoagoa?  
ez da erantzunik.  
Zein izan ote zan

## EUSKEREA

Zarathustra ori?  
Dakigunez,  
erlijio berri baten  
aldarrikari, zabaltzaille.  
Jakituri ez urrikoa noski.  
Gerkar tradizioak  
aztikuntzaren,  
astrolojiaren eta  
alkimiaren maixutzat artua.  
Sanskritoz zigun idatzi  
munduan ezagun dan  
epopeiarik luzeena,  
erraldoiena.  
“Mahabarata”  
indiar askaziaren sorreran  
lurbertakoen artean  
sustatutako liskarren  
edespen luzea.  
Izkuntzan elerti-maillarik  
goena ikuturik  
ezerezean amildu  
ta pulunpatu zan. Au dena Asia’n  
Eta Europa’n zer?  
Ondo eta zuzen  
begiratuta  
asi ziran emen ere  
poliki lenbizi  
eta erabakiz geroago  
eberkera izkuntz  
jaio berriaren gaiak  
moldatzen,  
ustegabeen kulturaren  
erroak, agian, tentelak  
jartzen eta geroago  
aberi izango zanari  
mintza-jantzi alik eta  
dotoreena ematen.  
Zenbaitek pentsatzen dute  
jaiotzearekin doan emana

dakarkigula (edo zekartela)  
mingaiñean mintzatzera  
- doai bikain ori!-  
Baiñan bai zera!  
Danok bezela,  
Ben Yehuda’reñ jatorrikoak ere  
ezerezetik ekin bear nolabait  
moldatzen mintzaera  
eta osatzen egitura  
bere zailtasun  
eta edozein izkuntzek  
dakarten giltzarri ta  
egoera bereziekin.  
Orduan ez bait-zan  
eskolarik edo nun ikasterik,  
Norbera da beti, bai,  
motela edo azkarra  
bere maisu bakarra.  
Aurrenetik keiñuz edo  
esku-aieruka alkar ulertzera  
jo bear, urratsez urrats  
aurrera egin ta  
izkuntza menderatzeko.  
Zenbat bear du izkuntza batek  
garaitzeko? Zenbat urte edo  
zenbat belaunaldi?  
Ez dago esaterik,  
ez asmatzerik, ez-eta  
antz-ematerik ere.  
Ez dakigu zein izkerak  
artuko zuen aurrera-pausua  
lenengoa izateko.  
geientsuena izate onek  
bere garrantzia dauka.  
Geiengoek artuko bait-zuen  
danerako itza eta itzarekin  
agintze almentsua.  
Iriak eratu ziranean  
bizi-arau batzuk baten batek

(edo talde batek) eman bear  
izango zituen alkarren bizibiderako  
Eta onelatsu taldean  
buru egiten zuenak  
gidaritza edo agintaritzarako  
izendatua izango zan eta  
almenez eta begiramenez ornitua.  
Edestian, Biblia’k (Itun Zarrak  
xeetasunez beteriko israeldarren  
bizitza, bertako errege ta  
garaiko goarabera guztiak  
aundietsiz jaulkitzen digunez  
Erljioak berak arrisku aundiak  
zituen ezagutu.  
Profetak entzute aundikoak  
izan ziran. Erri-erregek gidatzeko.  
urteen joanarian, liskar eta  
guda latzetan, gorabera aundiak!  
izan zituen, errien arteko  
goren mailla irabazteko.  
Azkenik, erromatarrek menderatua  
zenbait gizaldi iraunda,  
erabat lu-jo arte. Erromatarrek  
Salomon’ek eraikitako jauretzea  
suntzitu eta aien eragiñez  
kultura berrian sarturik  
latiña zen nagusitu,  
eberkera eta ebertarrak aienatu  
ziran eta beroiekin Israel osoa.  
Jeremias’en Jerusalem! Malkoa!  
Jerusalem berri, goikoa, goitua.  
Yanué’reñ egoitza santua!  
Iñoiz zutaz aztu ba’nendi  
nere miia sapaiean itsatsi bedi.

**EGAÑA’tar GOTZON**





## JUPITER ETA EUROPA

### (Kreta'koa)

Jupiter jainko nagusiak Olimpo'tik beera begira egoala, neska batzuk ikusi ebazan landa baten jolasean, baiña euren artean bat zan ederragoa eta Jupiter maite-mindu egin zan onegaz eta emazte egin eban onelan:

Agertu jakon Jupiter neskeari, baiña ez jainko lez, zezen zuri baten itxuraz baiño.

Zezen zuria etorten ikusita ikaratu egin ziran neskek eta iges egin eben, baiña neskarik ederrena (Europa zan onen izena) ez zan izutu. Zezenagana urreratu zan eta adar-artean ikutuak egiten asi jakon. Zezena geldi-geldi egoan eta begi gozoakaz begiratzen eutson, eskerrak emoten lez.

Gero Europa neskeak lorak batu ebazan eta uztai bat eginda, saman ipiñi eutson zezenari.

Orduan zezena belauninko jarri jakon neskeak bere gaiñera igon egian. Eta igon egin zan Europa bildur barik.

Zezena asi zan lau-oinka neskea gaiñean pozik joiala. Itxasora eldu ziran eta uretara saretzen asi ziranean, orduan bai, orduan ikaratu zan Europa, baiña arrituta ikusi eban zezenak oiñak leorrean lez sendo egozala uretan, eta lasai jarraitu eban.

Eldu ziran itxasoaren beste aldera eta lurreratu ziranean, zezena gelditu egin zan eta Europa zezen-aiñetik jatsi. Eta bat-bateak Jupiter;ek zezen-itxura galdu eta jainko antza artu eban eta esan eutson "Zutaz maiteminduta nago. Gura dozu nire emaztea izan?"

Europa'k, Jupiter'en aunditasuna ta edertasuna ikusita, pozik emon eban baietza eta orrelan egin zan Jupiter'en emazte. Kreta'n ospatu eben ezkontzea eta jai aundiak egin ebezan.

Iru seme izan ebazan Europa'k Jupiter'engandik. Emaztearen omenez lurralde areri "Europa" ipiñi eutsoen izena.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## GIZAKIA

## PRIMATEA ETA GIZAKIAK BATERA

Bizia mundu onetan agertu zanetik millak milloiak urteak igaro ziran gure aurretikoak eta onein senide ziran primateak agertu-arte.

Ona emen 1945n. urtean Simpson gizon jakitunak egin eban laburpena: Primateen artean 1.- prosimioak, 2.- tarsioideak, 3.- antropoideak dagoz paleozeno deritxon aldian.

Urrengo eozeno aldia dator eta emen dagoz mundu barriko tximiñoak.

Urrengo oligozeno aldia dator eta emen dagoz mundu zarreko tximiñoiak.

Miozeno da urrengo aldia (orain 24 milloi urtetik 5 milloi urtera) eta emen agertzen dira gorilak, orangutanak ella txinpanzeak.

Azkenean pliozeno aldia daukagu eta bertan "hominoideak".

Azaldu daigun apur bat eskema labur au.

Miozeno izan zan primateen ugaritasunaren aldia eta 30 mota dagoz. Ez aitzu orrean artean dagoan mota bate-tik gatzela gizakiak.

Gizakiak, txinpanze mota bi, gorilak eta orangutanak eta beste sei mota diran giboiek dagoz primate-talde orretan, guztiai esaten jake "hominoideak".

Mundu zarreko tximiñoiak: lau-oinka ibilli baiña atzea gorago dabela, buztan bakoak, eskuetan eragin aundia, orriak eta igaleak jan, buruko garaun aundiak, zer jaten daben kontuan dala, batzuk agin-azal (esmalte) lodia dauke, beste batzuk meea... Euren artean batzuk dira aundiak (38k'koak) eta beste batzuk (10k'koak). Tropiko basoan bizi ziran baiña sabanak bitartean ebezala. Gero Europa'ta ta Asia'ra sartu ziran. (Ori 17 milloi urte dirala, erdiko miozenoan).

Orangutanak, txinpazeak eta gorilak alkarren artean antz aundiago dauke, gizakiakaz baiño.


Orrean artean zelan jakin gure aurretikoa zein dan? Orain 10-5 milloi urte bizi zan ramapithekus'ek dauko antzik aundiena.

Baiña zalantza aundiak dagoz eta gaur baieztatzen dana biar ukatu egiten dabe arlo onetako jakitunak.

1960n. urtean Goodman'ek esan euskun alkarrengandik urren dagozenak gizakiak, txinpanzeak eta gorilak dirala eta orangutana geratzen dala urriñen. Dana dala, guztietatik urren daukaguna txinpanzea dogu.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## GALDAKAO'KO SOINULARI TA DANTZARIAK



Zugutzuko Santa Barbara Dantza Taldea (1914garren urte inguruan).

### 1.- Dinamitako Fabrika

Dinamitako fabrika, lenengotan Gangurenen Santa Mañeko basoan egon zan. Eta fabrikearen lenengo bulego edo ofizinea, Bilbon, Lotería deritxon kalean, bigarren pisuan (ez dakit zein numerotan auki ebien) Geroago Dinamitako fabrika Santa Mañetik Zugutzure paseu ebien. Zugutzu edo Zubetzu, suge paregea zalako esaten ei eutsien eta ez deko zer ikusirik Zuazo izenarekin. Zuazo, gaur Zugutzun Formica lantegiak beren ofizinak dekozan tokian egon zan dorre etze baten izena izan zan eta Trenaren geltokiko izena be ortik yatorku.

1909 eta 1910 garren urteetan urteetan Zugutzuko Dinamita fabrikeak Santa Barbara eguna ospatzeko mezea kanpoan emoten eban; Zugutzuko eleizea ezan 1912rarte Zuazo, trenaren geltoki alboan egin. Geroago San Iñazio eguna ere ospatuko zan 1909 eta 1910 urte areitan txistulariak eta espatadantzariak Zugu-

tzun asi eta kalejirak, pasakelle, soka dantza edo biribilketak jotzen, Zugutzun asi eta Kurtzeko plazaragino, Udaletxe aurreragiño etorten ei ziran. Denpora areitako txistulariak Ramon San Sanbador, Luis Uriarte, eta Amado Albarez izan ziran, azken biak niri orrela esanda. Atabala, Madinak jotzen eban. Benarda izeneko andrasko batek neskari yantzan irikasten eutsien. Jaiak Zugutzuko fabrikearen ardura-pean Santa Barbara eta San Iñazio izaten ziran. Urte askoan, Zugutzuko eleizan Aita Txalbau Jesuita jauna abade egon zan.

Gaur Dinamitako fabrika dan barrutien 18 baserri etxe euron labrantza baso ta guzti egozan.

Urte askoan jai areitan jaiak baskari ta guzti egiten ziran; dana fabrikearen kontura. Sukaldari, Txomiñ Egilleor Banda de Musikako zuzendari jaunaren ama izaten zan; eta Bilbon, Hotel Arana ortan pretauta baskaria danontzat ekarten zan.

## 2.– Organistak

1902ko apirilaren 3tik 1904ko zemendiaren 17rarte D. Julian Larrinaga Organulari agertzen yaku. 1909ko abenduan 14an eleizako dokumentuetan Galdakaoko Organista edo Santa Maria Kurtzeko parrokiako Organulari lez D. Julian jaunaren anai D. Tomas agertzen da. Kurtzeko Santa Maria eleiza 1895garren urtean egiña da; eta bertan 1896ko agostuaren 17an lenengoz bataiatua, 10garren liburuak diñoen lez, Jazinta de Barandika eta Zubiaur umetxoa izan zan. Arteragoko bataiatua 1896ko agostuaren 7an Elexaldeko Andra Mari eleizan Juan Egiraun eta Asua umetxoa izan zan.

1936garren urterarte Galdakaon Kurtzeko Santa Maria Parrokiako Organularia D. Tomas de Larrinaga izan zan; eta beren denporan umeen triple koru bat be egoan Zenarruzabeitia txistularian neroneri esanda. D. Tomas bera esanean egoten organulari ordezko beren ikasle Sabin Zenarruzabeitia, txistularia be izan zana, organulari be egiten eban. Nai ta D. Tomas abadea organulari ona izan beren anai D. Julian antza obetzat eukiten ei ebien.

Tartean 1912garren urtean Zugutzuko Santa Barbara eleizea egin ebien eta organulari lez orain urte batzutararte Galdakaon Banda de Musikako soinuari izan zan D. Jose Egileor jauna Zututzuko eleizako Organulari izan zan.

Gerra ostean Galdakaoko Santa Maria parrokian Organulari D. Leandro Ajuria abade jauna izan zan; eta Kurtzeko Dr. Gandasegui eskoletako maisu D. Rufino Otxoa bertan musika irakasle agertzen zan; baña maisu onek kurtzeko parrokian domeketan 9retako mezan aurrengo jesar lekuetan 20enbat ume triple kantari zebillen maisuak irakatsita eta bera zuzendari agertzen zela. D. Leandro jaunagandik gero Organujole D. Rufino bera pareu zan; eta onen urrengo edo ondorengo Maximo Moreno jauna. agertzen yaku.

Gerratik gero eta Udaletxearen aginduz D. Rufino Otxoa eta beren alaba Kurtzeko eta Usansoloko eskoletan solfeo eta musekea irikasten ibilli ziran. Onein ondorengo solfeo eta musikea irikasten Maximo jauna pareu egin zan; eta gero kurtzeko eskoletan Luis Barandika, Txistularia, eta banda de musikako soinuari Rufino Ereño be ibilli ziran. Zugutzun Maria Isa-

bel izeneko monja bat be kuerdazko soinu-tresnak musika eta pianuaren irakasketak emoten ibilli zan gero ortik kontzerbatoriora joateko moduan ikasleak paretan ziran da.

Galdakaon kultura musikala eunkada urteetan izan da, bai, organista eta abar irakasle be bertan agertu diralako, lan oso ikusgarria beti egiten ibilli diralako.

## 3.– Eleizako Kantalariek

1920garren urtean eta 1926ean be kantariantzat eleizako soldata 50 pesetako izan zan.

1928garren urtean Coral Zaletasuna sortu zan, Maximo Moreno be zuzendari eta sortzalle zala; eta 1931garren urtean Zaletasuna desagertu egin zan. Orduan Batzokia koral bat sortu naian ibilli arren, gauza ori ezin izan eban lortu.

1937garren urtean organularientzat 100 pezeta emon ziran; eta kantularientzat irurogei pezeta eta kitto. Gerra ostean D. Leandro abade izan zala, D. Rufino Otxoa eskola maisua kantalarien zuzendari domeketan bederatziretako mezan izaten zan.

Kurtzeko eleizako katoliku ekintzan Doroteo Egiarte, Txistulariak, Zaletasuna izenagaz 1943garren urtean seikote kantalaria sortu eban bera zuzendari zala eta 1947garrenerarte iraun eban; baña ortik gero zuzendari berak Otxote edo kantolari zortzikote bat sortu eban 1950garren urterarte.

Tartean 1946garren urtean Otxote Santa Barbara sortu zan eta 1951rarte iraun eban. Oneik be Lutxana-Barakaldo, Basauri eta Santa Barbara Kurtzetan kantatzen ebien. 1950garren urtean Doroteo Egiarteren kantari taldetik sortuko zan Grupo Coral Galdacano; eta 1976garren urtean Zaletasuna izena jarri eutsien. Koralean bertan be Otxotea sortu zan Bizkaiko Otxoteran artean txapelketetan parte artzeko.

**JOSE MARIANO BARRENETXEA**



(Goian bego)

**EUSKERAZALEAK**

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

# BBK

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilero,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**